

6/2019 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK IRAILAREN
10ean EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Pablo Azcona Molinet jn., Lodosako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Tirso Calvo Zadoya jn., Ribaforadako alkatea

KIDEAK:

Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea

Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua

David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.

Nieves Recalde Zaratiegui and., Etxagueko Kontzejuko burua.

Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea.

Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.

Jesús María Arruzubieta Astiz jn., *Tafallako alkatea*

Fernando Ferrer Molina jn., Tuterako zinegotzia

Cruz Moriones Uriz jn., Ustaizeko Kontzejuko burua.

Yolanda González García and., Vianako alkatea.

Ezin etorria adierazi dute:

Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea

Iñaki Arguiñano Azcona jn., Artazuko alkatea.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemeretziko irailaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERREDA

1. Aurreko bilkuraren aktaren informazioa eta onespina.
2. Batzordeei eta kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
3. Atxikimenduak NUKFra.
4. NUKFko organoak berritzeko ezohiko batzarrerako deia.
5. NUKFko karguak hautatzeko sistema- eta prozedura-proposamena.
6. Presidentearen informazioa.
7. Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren aktaren onespena

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak uztailaren 16an egin zen Batzorde Betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Bertaratuen oniritziarekin,

ERABAKI DA:

2019ko uztailaren 16an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzordeei eta kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- Toki Araubideko Foru Batzordea. (2019/07/23).
- Nafarroako Gardentasun Kontseilua. (2019/09/02).

ERABAKI DA:

Horretaz jabetzea.

3. PUNTUA. Atxikimenduak NUKFra.

NUKFri atxikitzeke eskaera hauen berri eman da:

- Zilbetiko Kontzejua.
- Olabeko Kontzejua.

ERABAKI DA:

Aintzat hartzea entitate horien eskaera eta, horrenbestez, NUKFko kide bihurtzen dira bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

4. PUNTUA. NUKFko organoak berritzeko ezohiko batzarrerako deia

Lehendakariak azaldu du, Estatutuei jarraiki, Toki Udalbatzak berritu ondoren ezohiko Batzar Orokorra deitu behar dela NUKFko organoak berritzeko. Proposatzen da NUKFren Ezohiko Batzar Nagusiaren bilkura urriaren 14an egitea, Iruña Park Hotelean, 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarrenetan. Hona hemen gai-zerrenda:

- 1- NUKFren organoak hautatzeko sistema eta prozedura onestea.
- 2- NUKFren organoak hautatzea 2019-2023 legegintzaldirako.

ERABAKI DA:

NUKFren Ezohiko Batzar Nagusiaren bilkura urriaren 4an egitea, Iruña Park hotelean, 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarrenetan, proposatu den gai-zerrendarekin.

5. PUNTUA. NUKFko karguak hautatzeko sistema- eta prozedura-proposamena

Lehendakariak azaldu du, Estatutuek NUKFko karguak hautatzeko arau orokorrak baino ez dituztela jasotzen eta, horregatik, beharrezkoa dela Batzordeak hautaketa prozedura bat onestea, hala dagokiolako. Horrenbestez, bilkuraren deialdiarekin batera helarazi den prozedura proposamena aurkeztu du eta Idazkari Nagusiari eman dio hitza. Azken honek prozedura azaldu du.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA:

NUKFren organoak hautatzeko sistema eta prozedura ontzat ematea, ondoren, Batzorde Orokorrean onesteko.

6. PUNTUA. Lehendakariaren informazioa

Lehendakariak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Transurbana proiektua.
- Hautetsi berrientzat eskainiko diren ikastaroen deialdia.
- Polizien eta zerbitzuan diren agenteen lanpostuak baloratzeko azterketa.

- Botere Judizialaren Kontseiluak, Nafarroako Gobernuak eta NUKFk sinatutako Etxegabetzeen Hitzarmenaren luzapena.
- Euskarazko teknikari-itzultzaile lanpostua behin behinean betetzeko kontratazioa, Mikel Goñi Beriainek eskatutako eszedentzia dela eta.
- Lurralde Kohesiorako eta Toki Administrazioaren Kontseilari berriarekin izandako bilera.
- Espainiako Udal eta Probintzien Federazioak, FEMPk, irailaren 21ean egingen duen osoko bilkura.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, adierazi du Transurbana proiektuari buruzko informazio gutxi jaso dutela Nafarroako Gobernutik. Halaber, NUKFk Gobernuari informazio gehiago eskatzeko premia adierazi du, batez ere, toki entitateen babesa jasoko duten proiektuei dagokienez.

ERABAKI DA

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

7. PUNTUA.- Galde-eskeak

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, informazioa eta NUKFren irizpidea eskatu du aparteko orduen inguruan. Izan ere, ebazpen ezberdinak baitaude Nafarroako Administrazio Auzitegian eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegiko epai batean.

Idazkari Nagusiak gai horren inguruko informazioa eman du.

Arrizubieta jaunak berriro hitza hartu eta joko-etxeak irekitzearen inguruko kezka azaldu du.

Horren inguruan Lehendakariak azaldu duenez, lanean ari dira eta kezka hori dagoeneko Nafarroako Gobernuari adierazi zaio. Halaber, Gobernuari Jokoaren Nafarroako Kontseiluan parte hartzeko eskaera helarazi zaio eta jokoaren arazoari konponbidea bilatzeko asmoz, indarreko legediaren aldaketa ere eskatu zaio.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin batera sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.